

EUSKAL-ERRIAREN ALDE.

Nere besoak zabaldu eta
 Belaun gorriyen gañean
 ¡Ai! Jaungoikoa jarri naitzazu
 Egiyaz zure aurrean;
 Itzak neurritu nai nituzke nik
 Euskal-erriyan onean
 ¡Arren! Zerutik lagun zadazu
 Asitzerako lanean.

Ezin liteken gauzarik, ezta
 Izan ta izango zuretzat,
 Berarengatik erregututzen
 Dizu gaur nere biyotzak;
 Baldin ta baldin zure letarta
 Arkitzen bazait laguntzat,
 Nere promesa egikaritzen
 Abiyatzea deritzat.

¡O! mendi berde zoragarriya,
 ¡O! zure edertasuna,
 ¡O! zure zelai polit-politak,
 ¡O! zer alayatasuna;
 Oitu-eretan ondrik goyena,
 Beti daramakizuna,
 ¿Nork eta zeñek nola neurritu
 Zure atsegintasuna?

¡Ai zér umilla zeran pakean,
 Gudan berriz chit gogorra,
 Etsayari zuk sartu izandu
 Diozu beti bildurra;
 Zure arbolan ez du ebaki
 Oraindik iñork egurra,
 Beti egiya maitatu dezu,
 Lotsatu berriz gezurra!

Omanea chit erlijiyoan,
 Lanean zerade latza,
 Supitarekin egiten dezu,
 Itsasoz berriz arrantza;
 Alferkerian bizitutzea
 Zuretzat dalako lotsa,
 Ondra aldera begira dago
 Beti zerorren biyotza.

Gazte jendeak gazte bezela,
 Guraso zarrak guraso,
 Bakoitzak bere lan modubari
 Oi diyozu zuk eraso;
 Izerdiyakin bedeiñkatutzen
 Dezu lurra chit eroso,
 Berak ondoren ematen dizu
 ¡Zenbait atsegin ta gozo!

¿Non da arkitzen zure jenteak
Baduben argitasuna?
¿Non da gertatzen zure etzantzak
Daukaten gozotasuna?
¿Non da topatzen zure dantza ta
Pestaren edertasuna?
¿Non da billatzen justizientzat
Dezuben beldurtasuna?

Aberatsakin umildadea,
Oro bat apaiz jaunari,
Eztiyozu zuk federik eman
Beñere esku-beltzari;
Gaitzik opatu bage bizitzen
Zeradelako ñori,
Beraren bidez katez lotuta
Chit guchi zera agiri.

Chakurcho baten echendiakin
Oyera zerade juaten,
Lapur-bildurrik gabetandikan
Lotan zerade egoten;
Gabaz negarrik ezdakizu zuk
Auzokoari ematen,
Baizikan bear zeradenean
Lagun diyozu egiten.

Ate ondoko pobre gaisoa,
Egiyaz kupitzen zaizu,
Aldezazuken modubarekin
Ala laguntzen diyozu;
Iltakoaren oroitza berriz,
Luzaro gordetzen dezu,
Bizitza ona eriyotzakín
Berdin daramakizkizu.

Ez dezulako oitu-eretan
Beste ñoren antzikan,
Bizitu zera lege gogorrik
Bearrik gabetandikan;
Len eta oraiñ aldendu gabe
Kristau lege santutikan,
Euskal-erria bizi zintezke
Ondra oyezaz pozikan.

Lau gauza dira zerubak zuri
Gutziz antziña emanak
Eunkietan egondu dira
Beti zurekin etzanak;
Izkribatuta ikusten dira
Kondairan beren izenak,
Lorez zu bete izan zaituzte
Gizonik jakintsuenak.

Lauburugatik munduko jaunak
Zinduzen ala bigundu,
Euskeragatik godoen mende
Etziñaden zu egondu;
Fedea-gatik Pelayori zuk
Zeniyon bada lagundu,
Fueroengatik zure kondaira
Zenduben lorez apaindu.

Baldin munduban Zerurik bada
Euskal-erria zu zera,
Euskal-erria etzoazela
Beste bidetan galtzera;
Gorderik ondo erlijijyoa,
Maitatu zazu euskera,
Sayatu zaitetz zure legeak
Lenbailen billatutzera.